

Gaia: 09/2024

---

## SARI BAT JASOTZEARI BURUZ EGINDAKO KONTSULTA BATI BURUZKO EBAZPENA

---

### I.- KONTSULTA

1.- 2024ko uztailaren 5ean, Ogasun eta Finantza Departamentuko langile baten mezu elektronikoa jaso zen, errenta-aitorpena euskaraz egiteagatik (...)ko Mankomunitateak emandako sari bat jasotzeko baimena eskatuz.

Interesdunak jakin nahi du jasotzeak Erakundearen Zuzentasun Sistema urratuko lukeen.

### II.- APLIKATU BEHARREKO ARAUAK

1.- Diputatuen Kontseiluaren 2016ko martxoaren 1eko Erabakiaren bidez onetsi zen Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko Erakundearen Zuzentasun Sistema (aurrerantzean, EZS), zeinaren bidez etika publikoa eta eredugarritasuna ezaugarri gisa finkatu nahi baitira.

Sistema horren esparruan, zenbait jokabide kode onartu ziren: Diputatuen Kontseiluaren 2016ko martxoaren 1eko erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien kodea (KPJK); Diputatuen Kontseiluaren 2017ko irailaren 5eko erabakiaren bidez, kontratazio publikoari aplikatu beharreko Jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua (KJK); Diputatuen Kontseiluaren 2017ko azaroaren 7ko erabakiaren bidez, Gipuzkoako foru Enplegu publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea (EPJK); Diputatuen Kontseiluaren 2018ko urriaren 2ko erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren laguntzei eta diru laguntzei aplikatu beharreko Jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua (DLJK); 13/2022 Foru Dekretuaren bidez, 2022ko irailaren 13koak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoarekin elkarreragiten duten Interes Taldeei aplikatu beharreko Jokabide Kodea (ITJK); eta Diputatuen Kontseiluaren 2023ko urtarrilaren 10ko erabakiaren bidez Datuak eta Adimen Artifiziala erabiltzeko kode etikoa (DAAK) .

2.- Bai EZSk bai jokabide kodeek hau ezartzen dute: Erakundearen Etika Batzordea (EEB) izango dela berme handieneko organoa eta hura aplikatzeko gaien berri izango

duena. Batzorde horren antolaketa, prozedura eta funtzionamendua maiatzaren 3ko 10/2022 Foru Dekretuan arautzen dira, eta Batzordearen ardura izango da Erakundearen Zuzentasun Sistema garatzeko tresnetan ezarritako balioak, printzipioak eta jokabide arauak ez betetzeari buruz jasotako kexak eta salaketak izapidetzea eta ebaztea.

### III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALORAZIOA

Gai honetan, Ogasun eta Finantza Departamentuko langile batek adierazi du (...)ko Mankomunitateak bi lagunentzako bazakari baten zozketa egin duela errenta-aitorpena euskaraz aurkeztu dutenen artean. Interesduna izan da zozketaren irabazlea, zinegotzi baten eskutik jasoko duelarik eta (...) aldizkarian argitaratuko dute albiste argazkiarekin. Interesdunak prebentzio-kontsulta bat egin du, sari hori onartzeak EZS urratzen ez duela ziurtatzeko.

Gai honetan kontuan hartu behar den lehenengo gauza da eremu pribatuko gaia dela, hau da, ez duela zerikusirik foru Aldundiko langile gisa izan ditzakeen funtzio publikoekin. Hori da lehen kontu garrantzitsu bat, desberdinak izango bailirateke hausnarketa eta azterketa bere eginkizunak betetzearekin zerikusia izan balu; izan ere, Ogasun eta Finantza Departamentuko langilea izanik eta errenta-aitorpena gaia izanik, nolabaiteko lotura egon zitekeen zozketaren antolaketarekin, euskarazko errenta-aitorpena izapidetzeagatik.

Hala ere, hori ez da kasua, interesdunak ez baitu zerikusirik ez errenta-aitorpenaren ez sariaren prozedurarekin; aitzitik, zozketan parte hartu du aitortpena euskaraz aurkezteagatik, eta, beraz, arlo pribatuko gaia da erabat.

Horrek, hala ere, ez du salbuesten EZS kontuan hartzea; izan ere, beste batzuetan aipatu dugun bezala, karguen eta enplegatuen publikoen funtzio publikoetan eragina izan dezaketen eremu pribatuko gaiek bertan ezarritakoa jaso behar dute (05/2018, 06/2018 Ebazpenak). Baina, beste behin ere, kontsulta honetan deskribatutakoak ez dirudi interesdunaren funtzio publikoetan eraginik izan dezakeenik.

Hori guztia dela eta, Erakundearen Etika Batzordeak erabaki hau hartu du, aho batez, 2024ko abenduaren 10ean



## EBAZPENA

**Bakarra.-** Deskribatutako egoeraren testuingurua kontuan hartuta, interesdunak saria onartzeak ez du urratzen Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sisteman ezarritakoa.

**Irene Berasaluze Lazkano**  
Erakundearen Etika Batzordeko lehendakaria